

EGITEKO *beste* MUNDU *bat!*

banatuz eraldatu

M A I A T Z A K 1

Langileontzat bizimodua etengabe ari da zailtzen. Gorantz doa argindarraren kostua, alokairua eta hipoteka, erosketa-saskia, gorantz hileroko fakturak. Energia-enpresen irabaziak, banketxeenak, elikagai banaketa-kate handienak, zaintza sektoreko enpresa pribatuenak, horiek ere etengabe igotzen. Ez, ordea, langileon soldatak eta pentsioak. Kapitalak krisi garaia baliatzen du etekinak handitzeko, langileak desjabetzen eta herrialdeen arteko lehia areagotuz. Itxurazko demokraziaren bidez ahal denean, gerraren eta faxismoaren bidez behar denean.

Euskal langileon pentsioak, lan baldintzak

—hizkuntz eskubideak barne— eta, oro har, bizi baldintzak erasotzeko eta devaluatzeko prozesuak indarrean jarraitzen du. Bidegabea da zaintza lanen antolaketa: sexu eta jatorriaren arabera segregatuak eta arrazializatuak daude zaintza lan gehienak, eta ez dago sistema publikoa garatzeko borondaterik.

Zerbitzu publikoak, osasungintza batez ere, erasotuak dira; eta, hori gutxi balitz, orain, langileon aldeko politikak hain beharrezkoak direnean, pentsioak murrizteko neurri berriak hartzekotan dira hala Espainia nola Frantziako Gobernuak.

Aldaketa garaia da. Bizi dugun krisi ekosozialaren aurrean **trantsizio ekosozialista eta feminista** martxan jartzeko beharra aldarrikatzen ari gara LABetik; egiteko beste herri bat, egiteko beste mundu bat. Bi dira abian jarri beharreko prozesuak: batetik, **ekoizpen eta kontsumo ereduaren aldaketa ordenatua; eta bestetik, ondasunaren banaketa, guztion bizitzak bizigarriak izateko.** Jatorriaren araberrako lan eta enplegu banaketarekin apurtu beharra dago, soldata arrakalarekin bukatu, zaintza lan guztien aitortza ekonomikoa, politikoa eta soziala behar da,...

Gure herrian izan, baditugu eskumenak zerbitzu publiko duinak garatzeko; pentsioak osagarritzeko; gutxieneko soldata ezartzeko [lanbide arteko akordioa]; lan mundua euskalduntzeko, diskriminazioei aurre egiteko,.... Baditugu bitartekoak eta badaude baldintzak, hemen, lan eta bizi baldintza duinen aldeko borroka indartzen

jarraitzeko. **Euskal langileok badugu geure lanaren bidez sortutako ondasuna lehiatzeko grina. Lantoki eta sektoreetan borroka ugari daude piztuak. Eta pentsio murrizketa orori aurre egiteko borondate irmoa dugu.** Pandemiaren ostean LABek aldarrikatutako borroka ziklo berria abian da. Borrokarako prest eta borroketa murgilduta dagoen LABen komunitatea izango da, hain zuzen ere, Maiatzaren Leheneko protagonista.

LABen proposamena: trantsizioa abiatu, ondasuna banatu

Maiatzaren Lehenean gure aldarrikapenak lau haizetara zabalduko ditugu, Patronalaren eta instituzioen jarrera salatzearekin batera:

■ Zaintza lanak, enplegua eta aberastasuna banatu.

- Zaintza sistema publiko komunitarioa sortu [zaintza lan guztien berrantolaketa sozial justu eta unibertsalerako].
- Soldatak duindu, lanaldia murriztu (30 ordu).
- Zerga politika erreformatu.

■ Herritar orori zerbitzu publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu.

- Osasuna, garraioa, etxebizitza, pentsioa, energia edota zaintza sistema publiko-komunitarioa. Eremu hauetan esku hartze publiko sendoa eskatzen dugu.
- Egoera ez erregularrean dauden etxeko langile eta behargin guztiak erregulatu.

■ **Trantsizio ekosozialista abiatu** [langileon parte hartzearekin bideratua] eta “kapitalismo berdea”ren iruzurra baztertu. Gehien kontsumitzen dutenek gehiago murriztu beharko dute euren kontsumoa.

■ **Burujabetzan sakondu** eta egungo eskumenak baliatzearekin batera, erabaki ahalmena garatzeko tresnak sortu [hala nola, Euskal Gizarte Segurantzza, Euskal Lan Kodea].



EGITEKO *beste* MUNDU *bat!*

repartir para transformar

M A I A T Z A K 1

A los y las trabajadoras la vida se nos está complicando constantemente. Sube el coste de la electricidad, del alquiler y la hipoteca, de la cesta de la compra y de las facturas de cada mes. También suben los beneficios de las empresas energéticas, de los bancos, de las mayores cadenas de distribución alimentaria, de las empresas privadas del sector de los cuidados. Pero no los sueldos y pensiones de las y los trabajadores. El Capital aprovecha la época de crisis para aumentar sus beneficios, expropiando a las y los trabajadores y profundizando en la competencia entre países. A través de una democracia aparente cuando es posible, y a través de la guerra y el fascismo cuando es preciso.

El ataque y devaluación de las pensiones, las condiciones laborales (incluidos los derechos lingüísticos) y en general, las condiciones de vida de las y los trabajadores vascos sigue adelante. La organización de las tareas de cuidado es injusta: la mayoría de las tareas de cuidado están segregadas y racializadas por sexo y origen, y no hay voluntad de desarrollar el sistema público.

Los servicios públicos, sobre todo la sanidad, son atacados y, por si fuera poco, ahora, cuando las políticas a favor de los y las trabajadoras son tan necesarias, los gobiernos español y francés se plantean adoptar nuevas medidas para recortar las pensiones.

Es tiempo de cambios. Desde LAB reivindicamos la necesidad de poner en marcha **una transición ecosocialista y feminista** ante la crisis ecosocial que vivimos; un país por construir, un mundo por hacer. Dos son los procesos a poner en marcha: por un lado, **el cambio ordenado del modelo de producción y consumo; y por otro, la distribución de la riqueza para que todas las vidas merezcan ser vividas.** Hay que romper con la división del trabajo y el empleo según el origen, acabar con la brecha salarial, necesitamos el reconocimiento económico, político y social de todas las tareas de cuidado...

En nuestro país, sí que tenemos competencias para desarrollar unos servicios públicos dignos; para complementar las pensiones; para establecer el salario mínimo (acuerdo interprofesional); para euskaldunizar el mundo laboral, para combatir las discriminaciones... Tenemos herramientas y hay condiciones para seguir reforzando

aquí la lucha por unas condiciones de trabajo y de vida dignas. **Las trabajadoras y trabajadores vascos tenemos la determinación de disputar la riqueza creada a través de nuestro propio trabajo. En los centros de trabajo y sectores hay muchas luchas en marcha. Y tenemos la firme voluntad de hacer frente a todo recorte de pensiones.** El nuevo ciclo de lucha reivindicado por LAB tras la pandemia ya está en marcha. La comunidad de LAB, que está dispuesta a la lucha e inmersa en las luchas, será precisamente la protagonista del Primero de Mayo.

Propuesta de LAB: iniciar la transición, repartir la riqueza

El Primero de Mayo difundiremos nuestras reivindicaciones a los cuatro vientos, al tiempo que denunciaremos la actitud de la Patronal y de las instituciones:

■ Reparto de cuidados, empleo y riqueza.

- Crear un sistema público comunitario de cuidados (para una reorganización social justa y universal de todas las tareas de cuidado).
- Dignificar los salarios, reducción de jornada (30 horas).
- Reformar la política fiscal.

■ Garantizar a toda la ciudadanía los servicios públicos y los derechos fundamentales.

- Salud, transporte, vivienda, pensión, energía y/o un sistema público-comunitario de cuidados. Reclamamos una intervención pública firme en estos ámbitos.
- Regularizar a todas las y los trabajadores en situación irregular, incluidas las trabajadoras de hogar.

■ **Iniciar una transición ecosocialista** (orientada con la participación de los y las trabajadoras) y rechazar el fraude del "capitalismo verde". Quienes más consumen deberán reducir más su consumo.

■ **Profundizar en la soberanía** y crear herramientas para desarrollar la capacidad de decisión en el ejercicio de las competencias actuales (como la Seguridad Social Vasca, el Código Laboral Vasco).


